ELHEKETA. ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA.

1. Zer bazkari mota egiten dute Frantsesek eta Erronkari-koek?
2. Nun eta nola? Zer oletan?
3. Zerk erakusten dauku tenpe onean direla denak?

## HIRU BEHIEN ZERGA 2

(II)

Barateus-ekoak ere halaber biltzen dira, eta ekartzen dituzte hamar bat behi heien artetik hauta dezaten hiru Erronkari-koek. Behi horiek berdin-berdinak izan behar dira, adinez, adarrez eta kolorez, hauta eginikan albaiteruak arta haundiarekin, untsa ikertu eta izartu ondoan.

Gero, oixtian aipatu san Martineko zedarrian biltzen dira denak. Frantsesek ezartzen dute esku bat harrian, eta Erronkari-koek berea haren gainean; gero berriz frantsesek, eta heien ondotik Erronkari-koek, eta hola aldizkatu ondoan, metaren gainian azkenik hemengoek.

Ordian denek batian oihu egiten dute: "pax avant, pax avant", bakearen gan-ik zin eginik aitzinetik.

Orai zonbait urte artio Erronkari-koek botatzen zituzten tiro andana bat Frantzia alderat, bainan ohidura itsusi hori debekatua izan da, zorionez, frantsesak ez gaitzitzeko.

Gero denek, baketasun ederrenian, bazkari nasai bat egiten dute. Baretous-eko eta Erronkari-ko auzapezak eta zinautziak mahai batian; eta besteak, turistak, yartzen dira lurrian, han hemenka bildurik, multxoka, bizkarrian zare eta saretan ekarri dituzten yakiak *klikatzeko*.

Erran gabe doa umore onean direla denak, eta bazkal ondoan dantzak ere egiten ditu beretarik, xirulak eta armonikak bazterrak bozkarioturik.

## (III) ADITZ IKASKUNTZA.

31- Biltzen dira - 32 Ekartzen dituzte
33 - Hauta dezaten - 34- Erran gabe doa.

### 31 IZAN - Indicatif présent, Imparfait

| Indicatif présent | | Imparfait | |
|---|---|---|---|
| Ni naiz | = je suis | N. nintzen | = j'étais |
| Hi haiz | = tu es | Hi hintzen | = tu étais |
| Zu zira | = vous êtes | Z. zinen | = vs étiez |
| Hura da | = il est | Hu zen | = il était |
| Gu gira | = ns sommes | G. ginen | = ns étions |
| Zuk zaizte | = vs êtes | Z. zinezten | = vs étiez |
| Hek dira | = ils sont | He. ziren | = ils étaient |

### 32 UKAN. Indicatif présent.

| C.O sing. | | Complément dir. l'Obj. pluriel | |
|---|---|---|---|
| Nik dut | = je l'ai | N. ditut | = je les ai |
| Hik duk/n | = tu l'as | H. dituk/n | = tu les as |
| Zuk duzu | = vs l'avez | Z. dituzu | = vs les avez |
| Harek du | = il l'a | Ha. ditu | = il les a |
| Guk dugu | = ns l'avons | G. ditugu | = ns les avons |
| Zuek duzue | = vs l'avez | Z. dituzue | = les avez |
| Heiek dute | = ils l'ont | He. dituzte | = ils les ont |

Imparfait

| | | | |
|---|---|---|---|
| Nik nuen | = je l'avais | N. nituen | = je les avais |
| Hik huen | = tu l'avais | H. hituen | = tu les avais |
| Zuk zinuen | = vs l'aviez | Z. zinituen | = vs les aviez |
| Harek zuen | = il l'avait | H. zituen | = il les avait |
| Guk ginuen | = ns l'avions | G. ginituen | = ns les avions |
| Zuek zinuten | = vs l'aviez | Z. zinituzten | = vs les aviez |
| Heiek zuten | = ils l'avaient | H. zituzten | = ils les avaient |